

Landare honen familian, espezien kopurua nahikoa ugaria da; hala ere, lobularia generoaren bi espezie baino ez dira ezagutzen Europan. Horietako bat *Lobularia maritima* da eta honek bi subespezie ditu:

J. Terés



oraingoan aztertuko dugun subespezie *maritima* eta subespezie *columbretensis*; Columbretes irletan bakarrik aurkitzen dena, hain zuzen ere.

Latxortena landare txikia izan arren, sustrai-aparatu handia du, zalantzarik gabe, bere kokapenera egokituta. Kanpoko eiteari dago-kionez, gehienetan zurtoin lore-dun ugari dituen landare adarkatua da eta, oro har, lurzoruan etzanda egoten da. Hostoak txikiak eta lantzeolatuak, zenbaitetan obobatuak, dira. Lore ugari ditu eta zurtoin muturretako kapituluetan kokatzen dira; oro har, zuriak dira eta batzuetan arrosak. Usain goxoa dute. Urte osoa ematen du loretan eta, beraz, erleak ohizko bisitariak ditu. Bestalde, dituen haziak oso txikiak eta oso ugariak dira.

Landare honen banaketari dago-kionez, Euskal Herrian hareatzetan eta dunetan puntualki azaltzen da. Espezialistek ez dute Kantauriko ertzean landare espontaneo edo naturalizatua ote den garbi esaten, ornamentaziorako oso erabilia izan baita gure artean. Bestalde, landare honek polimorfiarako joera handia erakusten duela eta, Amerikan, Europako iparraldean, Ozeanian eta Australian, esaterako, naturalizatua izan dela esan daiteke.

Landare honen hazi txikiak hainbat gaitz sendatzeko erabili izan dira maiz, hala nola eskorbutoa, gaixotasun benereokoak eta irazketa-aparatuko gaitzak osatzeko. 🌻

Latxortena, lozez lore

Joxepo Terés*

* Naturalista

FITXA TEKNIKOA Latxortena

Familia:	kruziferoak
Espezia:	<i>Lobularia maritima</i> <i>subsp. maritima</i>
Banaketa:	kostaldean zehar oso sakabanatuta
Habitata:	hareatzetan eta dunetan bereziki
Sendabelarra:	bai

